## Gizarte Ekintza Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 196/2015 FORU DEKRETUA, abenduaren 15ekoa, adingabeen familia-harrerari laguntza eta babesa emateko konpentsazio ekonomikoak arautzen dituena.**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 1985eko ekainaren 25eko 63/1985 Foru Dekretuaren eta Eusko Jaurlaritzaren 1985eko uztailaren 2ko 211/1985 Dekretuaren bidez, erabaki zen Bizkaiko Lurralde Historikoaren esku jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen zerbitzuak, haur eta nerabeen babes eta tutoretzaren arloan.

Adingabeen Babes Juridikoari buruzko 1996ko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, zeinak Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen parte batzuk aldatzen baititu, adingabeen eskubideen arloko araudi nagusia da bere horretan, Kode Zibilaren beraren aurreikuspenekin batera, eta babes uniformea bermatzen die adingabeei Estatu guztian. Lege hori erreferente bat izan da autonomia-erkidegoentzat arlo horretan dituzten eskumenen arabera harez geroztik onartu duten legedirako.

Halaxe izan zen Euskal Autonomia Erkidegoarentzat, hain zuzen ere, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, argitaratu zuenean.

Hala ere, aldaketa handiak izan dira gizartean, adingabeen egoeran eragiten dutenak eta babes juridikoaren tresnak hobetzea eskatzen dutenak, eta, horren ondorioz, Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legea argitaratu da.

Araudi horretan, garrantzi handiko aldaketa bat egin da adingabeen babeserako egokitzen diren tresna juridikoetan, eta horietako bat da, hain zuzen ere, familia-harrera.

Hala, bada, lege berriaren 20. artikuluak familia-harrera aipatzen du, esanez Kode Zibilean ezartzen diren harrera- motak izango direla, eta, adingabeak familia hartzailearekin duen loturaren arabera, haren familia zabalaren barruan edo beste familiaren batean egin ahal izango dela harrera.

Bigarren mota horri dagokionez, halaber ezartzen da harrera espezializatua izan daitekeela eta, horren barruan, are profesionalizatua ere.

Edozein kasutan, familia-harrera formalizatzeko ebazpenarekin batera datorren agiriak jaso beharreko baldintzen artean, harrera-egileek jasoko dituzten konpentsazio ekonomikoa, laguntza teknikoa eta bestelako laguntza mota batzuk jaso beharko dira, halakorik baldin badago.

Era berean, harrera-egileen eskubideak ere jasotzen dira lege horren 20. bis artikuluan.

Beste alde batetik, Kode Zibilean ere egin dira aldaketak, lege berriaren ondorioz. Ildo horretan, 172. ter artikulu berriak ezartzen duenez, familia-harreraren bidez egingo da adingabeen zaintza, eta, hori ez bada posible edo egoki adingabearen intereserako, egoitza-harreraren bidez.

Horrez gainera, esan behar da, lege horren 173. artikuluan ezarritako aldaketaren arabera, familia-harrerak berez dakarrela adingabeak erabateko partaidetza izatea familiaren bizitzan; harrerak betebeharrak ezartzen dizkiela adingabea etxean hartzen dutenei, adingabe hori jagon, berarekin izan, eta horri mantenua, hezkuntza eta oso-osoko heziketa emateko, giro txeratsu batean. Desgaitasuna duten adingabeen kasuan, ordura arte jasotzen duten laguntza espezializatua jasotzen jarraitu behar dute, edo haien beharrei hobeto egokitzen zaizkien beste batzuk onartu.

Azkenik, 173. bis artikuluan ezartzen den aldaketa aipatu beharra dago, zeren zenbait familia-harrera mota jasotzen baititu, harrera-motaren iraupenaren eta helburuen arabera. Zehazki, honako mota hauek ezartzen dira:

## Departamento de Acción Social

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 196/2015, de 15 de diciembre de 2015, por el que se regulan compensaciones económicas destinadas a favorecer y apoyar el acogimiento familiar de personas menores de edad.**

Por Decreto Foral 63/1985, de 25 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia y Decreto 211/1985, de 2 de Julio, del Gobierno Vasco, se aprobó el traspaso de Servicios de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Bizkaia, en materia de Protección y Tutela de niños, niñas y adolescentes.

La Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor de modificación parcial del código Civil y de la Ley de Enjuiciamiento Civil, constituye, junto a las previsiones del código Civil, el principal marco regulador de los derechos de los menores de edad, garantizándoles una protección uniforme en todo el territorio del Estado. Esta ley ha sido el referente de la legislación que las Comunidades Autónomas han ido aprobando posteriormente, de acuerdo con sus competencias en esta materia.

Esto es lo que hizo la Comunidad Autónoma del País Vasco mediante la publicación de la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia.

No obstante, debido a cambios sociales importantes que inciden en la situación de los menores y que demandaban una mejora de los instrumentos de protección jurídica, se ha producido la publicación de la Ley 26/2015, de 28 de julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia.

En dicha norma se ha producido un cambio muy importante en los instrumentos jurídicos puestos a disposición de la protección de los menores, entre los cuales se encuentra la medida de acogimiento familiar.

Y así el artículo 20 de la nueva ley se refiere al acogimiento familiar, diciendo que revestirá las modalidades establecidas en el código Civil y, en razón de la vinculación del menor con la familia acogedora, podrá tener lugar en la propia familia extensa del menor o en familia ajena.

Respecto a este último, también se establece la posibilidad de que pueda ser especializado e, incluso dentro de éste, profesionalizado.

En todo caso, y dentro de los extremos que debe incorporar el documento al que se acompaña la resolución de formalización del acogimiento familiar, estaría la compensación económica, apoyos técnicos y otro tipo de ayudas que, en su caso, vayan a recibir los acogedores.

Y lo mismo, se establece en el artículo 20 bis de la referida ley, en cuanto derecho de los acogedores.

Por otra parte, el código Civil también sufre transformaciones derivadas de la nueva ley. En este sentido, el nuevo artículo 172 ter establece que la guarda se realizará mediante el acogimiento familiar y, no siendo éste posible o conveniente para el interés del menor, mediante el acogimiento residencial.

Además, cabe decir, de acuerdo a la modificación establecida en el artículo 173 del referido texto legal que, el acogimiento familiar produce la plena participación del menor en la vida de familia e impone a quien lo recibe las obligaciones de velar por él, tenerlo en su compañía, alimentarlo, educarlo y procurarle una formación integral en un entorno afectivo. En el caso de menor con discapacidad, deberá continuar con los apoyos especializados que viniera recibiendo o adoptar otros más adecuados a sus necesidades.

Por último, hay que hacer mención de la modificación establecida en el artículo 173 bis, en cuanto que recoge las siguientes modalidades de acogimiento familiar atendiendo a su duración y objetivos. Y así, quedan establecidos los siguientes:

cve: BAO-BOB-2015a247

a) Urgentziazko familia-harrera: batez ere, sei urte baino gutxiago duten adingabeentzat izango da, eta ez du sei hilabete baino gehiago iraungo, kasuan-kasuan zer familia-babes neurri dagokion erabaki bitartean.

b) Aldi baterako familia-harrera: iragankorra izango da, bai adingabearen egoeraren arabera bere familiara itzuliko dela aurreikusten delako, bai beste babes-neurri bat egonkorragoa hartzeko astia behar delako, hala nola familia-harrera iraunkorra edo adopzioa. Harrera horrek bi urte iraungo du gehienez ere, salbu eta adingabearen interesak neurria luzatzea gomendatzen badu, aurreikusirik berehala itzultzekoa dela bere familiara edo beste babes-neurri behin betikoren bat hartuko dela.

c) Familia-harrera iraunkorra: aldi baterako harrera-aldiaren bi urteko epea amaitzean ezarriko da, familiara itzultzea ezinezkoa izanez gero, edo, zuzenean, beharrizan bereziak dituzten adingabeen kasuetan nahiz adingabearen eta haren familiaren inguruabarrak hala egitea gomendatzen dutenean.

Eta, hala, Gizarte Ekintza Sailak, haur-nerabeen babesean dituen eskumenak erabiliz eta sailak berak familia-harrerarako duen programa garatzearen ondorioz, ikusi zuen egokia zela familia-harrera errazteko eta laguntzeko konpentsazio ekonomikoen emakida zehatz-mehatz arautzea; alegia, zehatz-mehatz arautu behar zirela haur-nerabeoi ematen zaien babesa eta haiek familietan zein gizartean integratzeko bideak. Sailak egoki ikusi zuen, orobat, laguntza ekonomikoa ematea haur-nerabeok hartzen dituzten pertsonei, haien mantenua, heziketa eta osasun-laguntza direla-eta sortzen zaizkien gastuetarako. Hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat dekreturen bidez onartu izan ditu familietan harrera ematea sustatzeko eta laguntzeko konpentsazio ekonomikoen araudiak. Horien artean azken publikatua, eta orain indarrean dagoena, 2014ko abenduaren 9ko 148/2014 Foru Dekretua.

Azkenik, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua aipatu behar da, zeinak Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen baitu. Bertan xedatzen denez, diru-laguntzen emakida honako printzipio hauen arabera egin behar da: publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza; efikaziaz bete behar dira diru-laguntzak ematen dituen administrazioak finkatutako helburuak; baliabide publikoak eraginkortasunez esleitu eta erabili behar dira, eta diru-laguntzak eman aurretik diru-laguntzon emakida arautuko duten oinarriak ezarriko dituzten arauak onetsi behar dira.

Hori guztia dela bide, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17. eta 64.3 artikuluetan emandako ahalmenak erabiliz, Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2015eko abenduaren 15eko bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DA:

**1. artikulua.—*Xedea***

Foru dekretu honen bidez, honako alderdi hauek arautu nahi dira, Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan:

1. Adingabeen familia-harrera errazteko konpentsazio ekonomikoen zuzeneko emakida.

2. Familia-harrera laguntzeko aparteko konpentsazio ekonomikoak.

**2. artikulua.—*Izaera eta ezaugarriak***

1. Haur eta nerabeen familia-harrera errazteko konpentsazio ekonomikoak aldi baterako diru-laguntzak dira, eta adingabea familian jaso eta, ezarritako planaren arabera, haur edo nerabe horren mantentze, heziketa eta osasun-laguntzako gastuak bere/euren gain hartu dituen/dituzten pertsonari/pertsonei laguntza ematea dute xede.

a) Acogimiento familiar de urgencia, principalmente para menores de seis años, que tendrá una duración no superior a seis meses, en tanto se decide la medida de protección familiar que corresponda.

b) Acogimiento familiar temporal, que tendrá carácter transitorio, bien porque de la situación del menor se prevea la reintegración de éste en su propia familia, o bien en tanto se adopte una medida de protección que revista un carácter más estable como el acogimiento familiar permanente o la adopción. Este acogimiento tendrá una duración máxima de dos años, salvo que el interés superior del menor aconseje la prórroga de la medida por la previsible e inmediata reintegración familiar, o la adopción de otra medida de protección definitiva.

c) Acogimiento familiar permanente, que se constituirá bien al finalizar el plazo de dos años de acogimiento temporal por no ser posible la reintegración familiar, o bien directamente en casos de menores con necesidades especiales o cuando las circunstancias del menor y su familia así lo aconsejen.

Y así, en el ejercicio de las competencias en materia de protección a la infancia y adolescencia y en el desarrollo del propio programa de acogimiento familiar, el Departamento de Acción Social apreció la conveniencia de regular, específicamente, la concesión de compensaciones económicas destinadas a favorecer y apoyar el acogimiento familiar, y en definitiva la protección e integración familiar y social de los niños, niñas y adolescentes, colaborando económicamente en los gastos de manutención, educación y atención sanitaria que asumen los acogedores, y en su virtud la Diputación Foral de Bizkaia tiene aprobados mediante decretos sucesivos la regulación de la concesión de ayudas económicas destinadas a favorecer y apoyar el acogimiento familiar, siendo el último publicado y vigente el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 148/2014, de 9 de diciembre.

Por último, hay que referirse a la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, regula el Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral de Bizkaia, disponiendo que la concesión de subvenciones se ajustará a los principios de publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no-discriminación, de eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la Administración otorgante y de eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos y que con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones deberán aprobarse las normas que establezcan las bases reguladoras de concesión de las subvenciones.

En su virtud y en uso de las facultades conferidas por los artículos 17 y 64.3 de la Norma Foral número 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, a propuesta de la diputada foral de Acción Social y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, en su reunión de fecha 15 de diciembre de 2015.

SE DISPONE:

**Artículo 1.—*Objeto***

Es objeto del presente Decreto Foral regular, en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia:

1. La concesión de forma directa de las compensaciones económicas destinadas a favorecer el acogimiento familiar de personas menores de edad.

2. Las compensaciones económicas extraordinarias de apoyo al acogimiento familiar.

**Artículo 2.—*Naturaleza y carácter***

1. La compensación económica para favorecer el acogimiento familiar de niños, niñas y adolescentes es una ayuda periódica de naturaleza económica que tiene por finalidad prestar apoyo a la persona o personas que acogen familiarmente a personas menores de edad y asumen sus gastos de manutención, educación y asistencia sanitaria, conforme al plan de acogimiento establecido.

cve: BAO-BOB-2015a247

2. Familia-harrera laguntzeko aparteko konpentsazioak, berriz, aldi baterako ez diren diru-laguntzak dira, eta aparteko baldintzen ondoriozko egoeran —behar bezala egiaztatuta— dagoen/dauden pertsona jasotzaileari/jasotzaileei laguntzeko dira, adingabearen beharrezko laguntzarako aparteko gastu bati aurre egin behar izanagatik.

3. Era berean, eta salbuespen gisa, aparteko konpentsazioak eman ahalko dira Bizkaiko Foru Aldundiaren zaintzapean edo tutoretzapean dauden eta familia-harreran jasota dauden adingabeez behar bezala arduratzeko eta haiek behar bezala garatzeko beharrezkoak diren inbertsio ondasunak eskuratu ahal izateko.

4. Foru dekretu honen babesean emandako konpentsazio ekonomikoak ez dira zenbatuko diru-sarrerak bermatzeko errenta edo laguntzako prestazioa eman ala ez erabakitzeko.

Era berean, bateragarriak izango dira familia barrukoen zaintzarako prestazioarekin, baina, halakoetan, familia-harrera sustatzeko konpentsazio ekonomikoa foru dekretu honen 5.1 a) artikuluan jasotzen dena izango litzateke, salbu eta harrera espezializatua edo profesionalizatua izanez gero (indarrean dagoen 26/2015 Legean onartzen eta ezartzen den terminologiaren eta bereizketaren arabera), halakoetan ez bailitzateke bateragarria izango familia barruko zaintzetarako prestazioarekin.

Foru dekretu honen 5. 1 artikuluaren b) atalean aipatzen den adingabeen ezintasunari dagokionez, horretan ulertu behar da ezintasun horrek ez duela sortzen familia inguruko zaintzen prestazioa arautzen duen foru dekretuaren araberako maila eta zenbatekotan baloratzeko moduko mendekotasun-egoerarik.

5. Konpentsazio horien ezaugarriei dagokienez, zera esan beharra dago: eman diren xederako baino ezin dira erabili eta transferiezinak dira, eta, hortaz, ezin izango dira betebeharren berme legez eskaini; ezin dira erabat edo zati batean laga; ezin dira konpentsazio edo deskontuaren xede izan, behar ez bezala jasotako prestazioak itzultzeko ez bada; eta ezin dira itzulketaren edo bahikuntzaren xede izan.

Salbuespen gisa, eta bidezkotzat jotzen diren arrazoiak direla-eta, aparteko konpentsazioaren zenbatekoa laguntzaren xede den esku-hartzea egin duen profesional edo enpresari ordaindu ahal izango zaio, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Batzordeak aldez aurretik horretarako baimena eman ondoren.

6. Era berean, diru-laguntza hauekin batera ezin izango da beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderik jaso helburu bererako, nahiz eta horiek Estatuko, Europar Batasuneko nahiz nazioarteko erakunde bateko beste edozein administrazio edo entitate publiko zein pribatuk emanak izan.

**3. artikulua.—*Onuradunak***

Kode Zibilaren 173. eta 173. bis artikuluetan xedatutakoaren arabera formalizatutako haur eta nerabeen familia-harreren titularrak diren pertsonak izan daitezke foru dekretu honetan araututako konpentsazio ekonomikoen onuradun.

**4. artikulua.—*Prozedura eta ebazpena***

1. Familia-harrera errazteko konpentsazio ekonomikoak ofizioz emango dira, familia-harrera gauzatzen denean, eta Gizarte Ekintzako foru diputatuak ebatziko ditu.

Horretarako, lehia askearen prozedura jarraituko da, era honetako konpentsazio-motetan ezinezkoa baita eskabideen artean inolako lehentasunik ezartzea, ezta bereizkeriarik egitea ere. Eskaerak jaso ahala banatuko dira funtsak, 5. artikuluan xedatutakoarekin bat, betiere deialdi honetan xedatutako betekizunak betetzen badituzte eta aurrekontuko zuzkidurek horretarako bidea ematen duten bitartean.

2. Familia-harrera laguntzeko aparteko konpentsazio ekonomikoak interesdunak eskatuta emango dira. Horretarako eskaria ebazpen honen eranskinean jasota dagoen eskabidearen arabera egin behar da, eta lehia askeko prozeduraren arabera emango dira. Kasu horretan, eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko

2. Las compensaciones económicas extraordinarias al acogimiento familiar son ayudas de carácter económico no periódicas destinadas a prestar apoyo a la persona o personas acogedoras en supuestos derivados de circunstancias especiales, debidamente acreditadas, que requieran un gasto extraordinario para la debida atención de la persona menor de edad.

3. Igualmente con carácter excepcional podrá otorgarse compensaciones extraordinarias para la adquisición de bienes de inversión necesarios para la debida atención y desarrollo de las personas menores de edad, cuya guarda o tutela ostente esta Diputación Foral y estén acogidos familiarmente.

4. Las compensaciones económicas concedidas al amparo del presente Decreto Foral no se computarán para la concesión de la Renta de Garantía de Ingresos y la Prestación No Contributiva.

Asimismo, serán compatibles con la prestación para cuidados en el entorno familiar, si bien en este caso, la compensación económica para favorecer el acogimiento familiar sería la correspondiente al artículo 5-1 apartado a) del presente Decreto Foral, a excepción del acogimiento especializado o profesionalizado (de acuerdo a la terminología y diferenciación aprobada y establecida por la vigente legislación-Ley 26/2015), ya que en este caso no sería compatible con la mencionada prestación para cuidados en el entorno familiar.

Respecto a la discapacidad de menores acogidos que se contempla en el artículo 5-1 apartado b) del presente Decreto Foral ha de entenderse en el sentido de que dicha discapacidad no conlleve una situación de dependencia valorable en cuanto a grados y cuantías por el Decreto Foral por el que se regula la prestación para cuidados en el entorno familiar.

5. En cuanto a las características de estas compensaciones cabe decir que son finalistas e intransferibles y, por tanto, no podrán ser ofrecidas en garantía de obligaciones; ser objeto de cesión total o parcial; ser objeto de compensación o descuento, salvo para el reintegro de las prestaciones indebidamente percibidas, o ser objeto de retención o embargo.

Excepcionalmente, y por motivos justificados el importe de la compensación extraordinaria se podrá abonar al profesional o empresa que haya realizado la intervención objeto de la ayuda, previa aprobación de la Comisión de Protección a la Infancia y Adolescencia.

6. Asimismo, estas ayudas son incompatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

**Artículo 3.—*Personas beneficiarias***

Podrán ser personas beneficiarias de las compensaciones económicas reguladas en el presente Decreto Foral aquellas personas que sean titulares de acogimientos familiares de niños, niñas y adolescentes formalizados con arreglo a lo dispuesto en los artículos 173 y 173 bis del Código Civil.

**Artículo 4.—*Procedimiento y Resolución***

1. Las compensaciones económicas para favorecer el acogimiento familiar se concederán, de oficio, cuando se formalice el acogimiento familiar, y serán resueltas por la diputada foral del Departamento de Acción Social.

El procedimiento a seguir en su concesión es el de libre concurrencia, ya que en este tipo de compensaciones no es posible establecer ningún tipo de prelación entre las solicitudes ni establecer distinción alguna; se distribuyen los fondos según se reciben las peticiones y de acuerdo con lo preceptuado en el artículo 5, siempre que reúnan los requisitos establecidos en esta convocatoria hasta que las dotaciones presupuestarias lo permitan.

2. Las compensaciones económicas extraordinarias de apoyo al acogimiento familiar se concederán a instancia de los/las interesados/as, conforme el modelo de solicitud que se incluye como Anexo a la Resolución y mediante procedimiento de libre concurrencia. En este caso las solicitudes se presentarán en el Regis-

cve: BAO-BOB-2015a247

Gizarte Ekintza Saileko Erregistroan aurkeztu beharko dira. Horrez gainera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38. artikuluan ezarritako bideetariko bat erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira eskabideok. Halakoetan, familia-harreraren inguruabar berezien frogagiriak gehitu behar zaizkio eskabideari, baita hari laguntzeko beharrezko aparteko gastuen aurrekontua ere.

Konpentsazio hauek eman edo ukatzeko eskumena (abuztuaren 25eko 12.525/2005 Foru Aginduaren bidez arautua) Gizarte Ekintzako foru diputatuarena izango da, eta, gehienez, sei (6) hilabeteko epearen barruan eman beharko da, dagokion foru aginduaren bidez. Konpentsazioa ematearen aldeko izanez gero agindua, haren zenbatekoa adierazi beharko da bertan, eta, ondoren, interesatuei legezko eran jakinaraziko zaie.

3. Konpentsazio ekonomikoen tramitazioa egiteko eskumena duen organoak eskua izango du, izapidearen edozein unetan, beste agiri edo datu gehigarri batzuk aurkez ditzaten eskatzeko onuradunei, ebazpena emateko egoki irizten bazaizkio.

4. Foru dekretu honetako 2. artikuluko 5. paragrafoan eta 5. 1 artikuluko b paragrafoan jasotzen diren kasuetan, Umeen Zerbitzuko talde teknikoaren aurretiazko txostena behar da. Bada, txosten horretan ebaluatu eta justifikatu behar da ea adingabe horrek gizarteratze normalizatutako zailtasunak dituen, ea kasuan kasuko haurrak edo nerabeak beharrizan bereziak dituen edo ea inguruabar bereziak agertzen diren. Horri dagokionez, adingabe batek beharrizan bereziak dituela uste izango da, baldin eta arazo psikiko eta sozial edo fisiko bereziak izateagatik zainketa trinkoa edo familia arruntetan ohikoa ez den zainketa behar badu.

5. 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 69. artikuluak —apirilaren 15eko 3/1999 Foru Arauaren bidez emandako idazketan— xedatzen duenez, Gizarte Ekintza Saileko foru diputatu txit argiaren ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari, eta haien aurka Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 116. eta 117. artikuluetan araututako aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, edota, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zuzenean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 46. artikuluan ezarritako eran.

6. 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 44. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak emandako idazkeraren arabera), interesdunek ezetsitzat jo ditzakete beren eskabideak administrazio isiltasunez, baldin eta ebazteko epea ebazpenik eman gabe igaro bada eta espresuki ebatzi eta jakinarazi ez bazaizkie. Halakoetan, beraz, interesdunek aurreko atalean aipatzen diren errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte.

**5. artikulua.—*Zenbatekoak***

Konpentsazio ekonomikoak honenbestekoak izango dira:

1. Familia-harrera errazteko konpentsazio ekonomikoak:

a) Aldi baterako familia-harrerak eta familia-harrera iraunkorrak: hirurehun eta laurogei euro (380 euro), hileko eta harreran jasotako pertsona bakoitzeko; gehienez, mila hirurehun eta hogeita hamar euro (1.330 euro), hilean eta familia-unitateko.

b) Birgizarteratze normalizatua eragozten dien desgaitasuna edo beharrizan bereziren bat duten haur edo nerabeen aldi-baterako familia-harrerak, harrera iraunkorrak eta adopzioa helburutzat dutenak: laurehun eta laurogeita hamabost euro (495 euro), hilean harreran jasotako pertsona bakoitzeko; gehienez, mila zazpiehun eta hogeita hamabi euro eta berrogeita hamar zentimo (1.732,50 euro) familia-unitateko.

c) Anai-arreba taldeen zaintzak, adopzioa helburutzat dutenak: hirurehun eta laurogei euro (380 euro), hileko eta harreran jasotako pertsona bakoitzeko; gehienez, mila hirurehun eta hogeita hamar euro (1.330 euro), hilean eta familia-unitateko.

tro del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia. Asimismo podrán cursarse a través de cualquiera de las formas previstas en el artículo 38 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. A la solicitud se acompañarán los documentos justificativos de las circunstancias especiales que concurran en el acogimiento, así como presupuesto de los gastos extraordinarios necesarios para su atención.

Será competente para la concesión o denegación de estas compensaciones la diputada foral de Acción Social, a propuesta de la Comisión de Protección a la Infancia y Adolescencia, regulada por Orden Foral número 12.525/2005 de 25 de agosto, que dictará, en el plazo máximo de seis (6) meses, la oportuna Orden Foral con expresión, en el supuesto de concesión, de la cuantía de la misma y que será notificada, en legal forma, a los/las interesados/as.

3. El órgano competente para la tramitación de las compensaciones económicas, podrá recabar a los/las beneficiarios/as en cualquier momento de la tramitación, la aportación adicional de otros documentos o datos que estime oportunos para la resolución.

4. En los supuestos contemplados en el artículo 2, apartado 2 y artículo 5 - 1, apartado b, del presente Decreto Foral, será necesario informe previo del equipo técnico del Servicio de Infancia, que evalúe y justifique la dificultad de su integración social normalizada, la necesidad especial del niño, niña o adolescente o la concurrencia de circunstancias especiales. A estos efectos se entenderá que una persona menor de edad presenta una necesidad especial cuando por su problemática psicosocial o física requiera una atención intensiva o no usual en la vida familiar normal.

5. Conforme dispone el artículo 69 de la Norma Foral 3/87, de 13 de febrero, en su redacción dada por la Norma Foral 3 /99, de 15 de abril, las resoluciones de la Sra. diputada foral de Acción Social, pondrán fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra las mismas el Recurso Potestativo de Reposición regulado en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común o, directamente, Recurso Contencioso-Administrativo, en los términos previstos en el artículo 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

6. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, en su redacción dada por la Ley 4/99, de 13 de enero, los/las interesados/as podrán entender desestimadas sus solicitudes por silencio administrativo, cuando llegue el vencimiento del plazo señalado para resolver, y aquéllas no hayan sido resueltas de forma expresa y notificadas en el mismo. En consecuencia, en dicho caso, podrán interponerse por los/as interesados/as los recursos indicados en el apartado anterior.

**Artículo 5.—*Cuantías***

Las compensaciones económicas se concederán en las cuantías siguientes:

1. Compensaciones económicas para favorecer el acogimiento familiar:

a) Acogimientos familiares temporales y permanentes: trescientos ochenta euros (380 euros) mensuales por acogido, con un máximo de mil trescientos treinta euros (1.330 euros) mensuales por unidad familiar.

b) Acogimientos familiares temporales, permanentes y guardas con fines de adopción de niños, niñas o adolescentes con discapacidad o necesidades especiales que les impida su integración social normalizada: cuatrocientos noventa y cinco euros (495 euros) mensuales por acogido, con un máximo de mil setecientos treinta y dos euros con cincuenta céntimos (1.732,50 euros) por unidad familiar.

c) Guardas con fines de adopción de grupos de hermanos: trescientos ochenta euros (380 euros) mensuales por acogido, con un máximo de mil trescientos treinta euros (1.330 euros) mensuales por unidad familiar.

cve: BAO-BOB-2015a247

d) Urgentziazko harrerei dagokienez, halakoetan, jasotzaileek beti egon behar dute prest urgentziazko edo larrialdiko egoerei erantzuteko, eta Umeen Zerbitzuak zehazturiko irizpideak bete behar dituzte: profila, proposamenaren onarpena, kasu bakoitzerako proposatzen den bisita-erregimenaren onarpena, eta abar, behin betikoago neurri bat hartzeko azterketak eta ebaluazioak dirauten artean. Dena dela, prozesu horrek ezin du 6 hilabete baino gehiago iraun. Halakoetan, honako hauek dira konpentsazioaren zenbatekoak: seiehun eta hogeita bost euro (625) hilean hartutako ume bakoitzeko, eta, gehienez, bi mila ehun eta laurogeita zazpi euro eta berrogeita hamar zentimo (2.187,50 euro) hilean familia-unitate bakoitzeko.

Salbuespen gisa, epea igaro eta aldi baterako harrera bihurtzen diren urgentziazko harreretan, baldin eta hori adingabearen edo adingabeen ebaluazioa egitea materialki ezinezkoa izan delako gertatu bada, urgentziazko harreretarako ezartzen den zenbatekoa kobratzen jarraituko da, ebaluazioa egin arte.

Harrera espezializatuei nahiz profesionalizatuei dagokienez (indarrean dagoen 26/2015 Legean onartzen eta ezartzen den terminologiaren eta bereizketaren arabera), ezarritako zenbatekoa jasoko da, goraxeago aipatu diren harrera moten arabera.

2. Familia-harrera laguntzeko aparteko konpentsazio ekonomikoak.

Haurrak eta Nerabeak Babesteko Batzordeak finkatuko ditu zenbatekoak, urte hasieran, kontuan harturik zenbatekoa izango den beharrezko aparteko gastu-kostua, zer ebaluazio egiten duen Umeen Zerbitzuaren talde teknikoak eta zer baliabide dagoen aurrekontuan.

**6. artikulua.—*Sortzapena***

1. Familia-harrera errazteko konpentsazioak jasotzeko eskubidea harrera-kontratua formalizatzen den egunetik aurrera sortuko da, eta ordainketa, berriz, hilabete bakoitza iraungitzen denean egingo da.

2. Hala ere, harrera formalizatzen denean kontuan hartu beharreko epea hilabetea baino laburragoa bada, orduan, ordainduko den zenbatekoa kalkulatzeko, hileko zenbatekoa zati 30 egingo da, eta hortik lortzen den emaitza kontuan hartu beharreko egun kopuruagatik biderkatuko da.

